



TASAK

UDALAK IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN ORDENANTZA EGUNERATZEA PROPOSATU DU

EDUKIA 2005ETIK EGUNERATU GABE ZEGOEN, ETA TASAK 2012TIK. PROPOSAMENAK ETA IRADOKIZUNAK EGITEKO AUKERA ZABALTZEA DA ASMOA.

Urkabustaiako Udalak trakzio mekanikoko ibilgailuen zergen ordenantza eguneratzea proposatu du. Ordenantza hori 2005ean sortu zen, eta ez da aldatu 2012ko azken eguneratzetik.

Aldaketa horretan aurreikusten da edukia urte hauetan zerga hori arautzen duen Foru Arauan egin diren aldaketetara egokitzea, zenbait hobari eta egokitzapen barne.

Aldaketak urriko osoko bilkuran onartzea aurreikusi du Udalak, 2024. urterako tasak eta zergak egokitzeko. Horretarako, aldeztuak ordenantza honen aldaketaren edukia herritarrei jakinarazi nahi zaie, proposamen eta iradokizunei atea irekitzeko.

Aurreikusitako aldaketen artean daude, besteak beste, urte batzuetan %90eko hobariak honako hauei: ziklomotorrak, trizikloak, kuadrizikloak eta motozikletak; turismoak; furgoneta arinak, 8 plaza baino gehiagoko ibilgailuak eta salgaiak garraiatzeko ibilgailuak, DGTren Ibilgailuen Erregistroan honela sailkatuta daudenak: batería ibilgailu elektrikoak (BEV), autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (REEV), gutxienez 40 kilometroko autonomia duten ibilgailu elektriko hibrido entxufagarriak (PHEV) eta erregai pilako ibilgailuak.

Baita ere urte batzuetan %50eko hobaria ezarriko zaie Ibilgailuen Erregistroan <40 km-ko autonomia duten ibilgailu hibrido entxufagarri gisa sailkatuta dauden turismo, furgoneta arin, 8 plaza baino gehiagoko ibilgailu eta salgaiak garraiatzeko ibilgailuei, bai eta gas naturalez (GNC eta GNL) edo petroliotik likidotutako gasarekin (GLP) propulsetutako ibilgailu hibrido ez entxufagarriak (HEV) ere.

2012 Proposamena

AUTOAK	13,87	15,26
8 zaldi baino gutxiago:	35,76	39,34
8 - 11,99 zaldi:	75,38	82,92
12 - 15,99 zaldi:	93,40	102,74
16 - 19,99 zaldi:	122,24	134,64
20 zalditik gora:		
TRAKTOREAK	19,02	20,92
16 zaldi baino gutxiago:	29,32	32,25
16 - 25 zaldi:	86,97	95,67
25 zalditik gora:		

Era berean, zergaren kuota osoaren %100eko hobaria ezarriko zaie historikotzat katalogatutako ibilgailuen titularrentzat, Ibilgailu Historikoen Erregulamendua onartzen duen uztailaren 14ko 1247/1995 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, eta hobari hori kendu egingo zaie ibilgailu historikoaren izendapena ez duten 25 urtetik gorako ibilgailuei.

Gainera, Zergaren kuotan hobariak emango zaizkie bost plaza edo gehiagoko turismoei, baldin eta horien titulartasuna familia ugaritzat jotzen den kide batena bada, errentari lotuta eta indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.

KPIa eguneratzea

KPIa eguneratzeko eta ibilgailuen kontsumoa beste modu batera zergapetzeko ere asmoa dauka Udalak. Horrela, turismoen atalean, 8 zaldi baino gutxiago dituztenek 15,26 euro ordainduko dituzte; eta 8 eta 11,99 artean dituztenek 39,34. 12-15,99 zaldi dituztenek 82,92; eta 16-19,99 zaldi dituztenek 102,74. Azkenik,



20 zaldi baino gehiago dituztenei 134,464 eurokoa dagokie.

Traktoreei dagokienez, 16 zaldi baino gutxiagokoek 20,92 ordainduko dituzte; 16 eta 25 zaldi bitartekoek 32,25; eta azkenik 25 zaldi baino gehiago dituztenek 95,67.

Tamaina txikiagoko ibilgailuen atalean, ziklomotorrek 6,06 ordainduko dute; motorrek 125cc 6,06; 125 eta 250cc 9,59; 250 eta 500cc 18,10; 500 eta 1.000cc 35,09. Eta, azkenik, 1.000cc baino gehiago dituztenek, 70,18 euro.

Kamioiek, autobusek, atoiak eta erdi-atoiak ere zerga aldatuta izango luke.

(Ikus proposamen osoa Udalaren webgunean).

ASTEKLIMA, PROGRAMAZIO ZABALA INGURUMENAZ KONTZIENTZIATZEKO

IRAILAREN 22TIK 30ERA, ONLINE LEHIAKETA, HITZALDIAK, ANTZERKIA, PERKUSIO TAILERRA ETA STREET SCAPE

Asteklima, Euskadiko Klimaren eta Energiaren Astea ekimenaren tesuinguruan, Urkabustaizko Udalak, Energiaren Euskal Erakundearen, IHOBEn eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, programazio zabala antolatu du herritarrek ingurumena-erikiko kontzientziatzeko.

Ekitaldiak ostiral honetan, irailak 22, hasiko dira Carbon Farmingi buruzko hitzaldi batekin, hau da, zure baratzean elikagaiak ekoizteko agro-ekosistema eraginkor bat. Hitzaldia kultur etxean izango da 18:00etan.

Igandean, irailak 24, Potxin eta Patxinek 'Ingurumena zaindu' izeneko antzezlan eskainiko dute, ingurumena gure egunerokotasunean zaintze aldera. Familia osoari zuzendutako obra hau Plaza Berrian antzeztuko da 12:30ean.

Egun berean, igandean, euskal kondairetan oinarritutako

asmakizun joko birtual edo Street Scape-a martxan jarriko da. Jokoaren bidez energia trantsizio jasangarria nola bultzatu erakutsi nahi da. Komeni da aurretik hemen (<https://entradium.com/es/events/street-scape-izarran-irailak-24>) izena ematea. Jokia 17:00etan abiatuko da Udaltxeko plazan.

Ondoren, astelehenean, irailak 25, 'Gorbeian Behin' izeneko joko berritzailea aktibatuko da, Gorbeialdeari eta ingurumenari lotutako galderak batuko dituena. Online joko honen baitan irailaren 25etik 30era bitartean egunero bi galdera egingo dira publiko, eta Gorbeialdeko Kuadrillako eta bertako udal-letako sare sozialen bidez eman- go dira ezagutzera.



ASTEKLIMA

Euskadiko Klima eta Energiaren Astea
Semana del Clima y la Energía de Euskadi

2023

IRAILAK 25 - 30 DE SEPTIEMBRE
Klima quiz/ Tribalde / Gorbeian behin - Online
 Juego de preguntas sobre Gorbeialdea y sobre el medioambiente. Gorbeialdeas eta ingurumenari buruzko galdera-jokoa.

IRAILAK 22 DE SEPTIEMBRE
Carbon Farming
 Agroecosistemas eficientes para la producción de alimentos. Nekazaritza ekosistema eraginkorak elikagaiak ekoizteko.
 18:00 - Kultur etxea/Casa de cultura

IRAILAK 24 DE SEPTIEMBRE
Ingurumena Zaindu
 Teatro sobre el cuidado del medioambiente en nuestro día a día. Gure egunerokoa ingurumena zaintzeari buruzko antzerkia.
 12:30 - Plaza nueva/Plaza berria

Street scape
 Juego de acertijos inspirados en leyendas para ayudar a impulsar una transición energética sostenible. Energia-trantsizio jasangarria bultzatzeko kondairetan oinarritutako itamakin jolasa. - www.entradium.com
 17:00 - Plaza nueva/Plaza berria

IRAILAK 26 DE SEPTIEMBRE
Perkusio tailerra
 Taller de percusión con materiales reciclados
 Perkusio - tailerra material birziklatuekin
 09:30 - Escuela de Izarra/ Izarrako eskola






BERTAKO MERKATARITZA)

MERKATU TXIKIA TOKIKO EKOIZPEN POSTUEKIN, BONUEKIN ETA ZOZKETEKIN

UDALAK ETA 18 NEGOZIOK EROSKETA BONUAK ETA PRODUKTU SORTAK ZOZKETATUKO DITUZTE.

Merkatu Txikikoa herriko urteroko hitzordu saihestezina da, tokiko ekoizpena eta merkataritza bultzatzeko, bai eta bizilagunen eta bisitarien aisialdirako ere.

Igande honetan, irailak 24, ospatuko da Izarran. Saltoki, ekoizle eta artisauen 14 postu jarriko dira, baita Asteklimako tailer eta jardueretarako hainbat stand, LGTBI informazioari buruzko EHGAMen stand bat eta Colombia Euskadi Elkartearen tailerren stand ere.

Bonu eta produktu sorten zozketa

Gainera, Udalak kanpaina bat jarri du

abian tokiko merkataritza sustatzeko, eta Merkatu Txikiko azokaren egunera arte, tokiko 18 negoziorekin lankidetzan, aipatutako negozioetan 13 euro baino gehiagoko erosketak bakoitzeko 200 euroko hamar bonoren zozketan sartuko da, baita tokiko produktu sortaren zozketan ere. Bonuen eta produktu sorten zozketa azokan bertan egingo da.

Tokiko merkataritzari eta ekoizpenari laguntzeko eta kontzientziatzeko ekitaldi honek Arabako Foru Aldundia- ren dirulaguntza du.

URKABUSTAIZKO AZOKA PLAZA (IZARRA PLAZA)

12:00 Merkatuaren irekiera eta merkatu Bonuetako lehenengo zozketak.

12:30 "Ekoizpena txikiak" Tailer jarduerak

13:30 Tokiko eta birziklatutako materialen zozketak

17:00 "Erosketak" (13 euro baino gehiagoko erosketak)

IRAILAK 24 SEPTIEMBRE

12:00 Jolaserako eta tailerrei buruzko antzerkia

12:30 Tailer infantil "Ingurumena zaindu"

13:30 Tailerrei buruzko antzerkia

17:00 "Erosketak" (13 euro baino gehiagoko erosketak)








IRAILAREN 29TIK URRIAREN 2RA BITARTEAN IZARRAKO JAIK OSPATUKO DIRA

BIZILAGUNEI DEI EGITEN ZAIE, ONDO PASATZEAZ GAIN, TXOSNETAKO ETA GARBIKETAKO TXANDETAN LAGUNTZEKO ETA PARTE HARTZEKO.



Berriro ere Izarrako jai kuttunak datoz eta motorrak berotzen dabilta. Izan ere, frontoian dagoeneko jarrita dago taula, ondo pasatzeaz gain, txosnan eta garbiketetan parte hartu eta lagundu nahi dutenek bertan izena eman dezaten.

Jaiak ostiralean hasiko dira, ohi bezala, eta jakina, jaitziera eta txupinazora mozorrotuta joateko deia egin dute. Mozorro onenak ostiral gauean sarituko dituzte. Jaitziera 19:00etan izango da Aldats elektrotxaranga lagunduta. Ondoren, txokolate jana, pilota partidua, Mad Muasel eta Iztuluren kontzertuak, Aldats berbera eta DJak izango dira.

Larunbatean ere ez da atsedenik izango: pintxo lehiaketa, txaranga, herri bazkaria, herri kirolak Arabako -eta tartean herriko- herri jasotzaileen eskutik, tute

txapelketa, 'Izarren hautsa' ikuskitzuna -ezin hutsik egin!-, kontzertuak Very Txarrak eta Guda Dantza taldeen kontzertuak, dantzaldia Zazpizar-ekin eta DJak.

Iganderako ere indarrak gorde beharko dira, puzgarriak, gastronomia lehiaketa -oraingoan patata protagonista-, dantza plaza Triskari taldearekin, bolo txapelketa, haurrentzako minidisco-a, penalti lehiaketa, odoloste lehiaketa, Beer Tapoong, Sakamantekas-en kontzertua eta DJak ere izango direlako.

Jaiak astelehenean bukatuko dira, igel lehiaketa, haurrentzako jolasak, bingoa eta Modestok girotutako dantzaldiarekin.

Ondo pasau!

ENPLEGUA

ARKITEKTO BERRIA KONTRATATU DA URTEBETERAKO

Udalak gazteei aukerak ematen jarraitzen du hauek lehenengoz lan munduan sartzeko eta, horrela, lan esperientzia metatzeko.

Horrela, kontratazioen ildo beretik jarraitzen du; izan ere, 30 urtetik beherrako pertsona bat bilatzeko prozesua

amaitu da, arkitekto lanak lanaldi osoan egiteko urtebetez, hautaketa prozesua gainditu ondoren. Eskaintza hori martxan dago Lanbideren webgunean, urriaren hasieran Udalean sartzeko asmoarekin.

UDALAK URRATS GARRANTZITSUAK EMAN DITU ISURKETAK MURRIZTUZ

UDALAK URRATS GARRANTZITSUAK EMAN DITU ISURKETAK MURRIZTU ETA TRANTSIZIO EGOKIA GARATZEKO

Klima 2050 Euskal Autonomia Erkidegoko Klima Aldaketaren Estrategiatik abiatuta, Euskadin klimaaldaketa arintzeko eta egokitzeko helburuak ezartzen dituena, eta EAEko Energia Jasangarritasunari buruzko 4/2019 Legea, energiaren arloko betebeharrak ezartzen dituena, beharrezko laguntza eta bultzada dira udalerrian ekintza klimatikoaren arloan aurrera egiteko eta ekintzak gauzatzeko. Gainera, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko etorkizuneko lege autonomikoarekin osatuko da EAEko udalerririk ekintza klimatikoko politiketan gidatzeko ezinbestekoa den esparru politikoa eta arau esparrua.

Azpimarratu behar da Urkabustaizko Udalak ere, 2019an, Larrialdi Klimatikoaren Erakunde Adierazpena onartu zuela udalbatzan, egungo krisi klimatikoari aurre egiteko neurriak hartzeko konpromiso gisa, eta karbonoz neutroa den lurralde bat lortzea helburu izanik, bidezko trantsizio baten bidez, baita larrialdi klimatikoaren aurrean lurralde eta gizarte erresilienteagoa lortzea ere.

Emisioak murrizteko edo berotegiefektua eragiten duten gasen hustubideak hobetzeko gizakiak egindako eskuhartzeari dagokio arintzea. Egokitzenaren helburua kalteak gutxitzea edo aldaketen ondoriozko aukera onuragarriak ustiatzea da.

Agenda 2030 eta Pariso Akordioa erreferentziatzeko esparru estrategikoak dira hurrengo urteetarako, iraunkortasunaren eta klimaren aldeko tokiko ekintzen arloan. Ekintzarako agertoki horrek lege babes handiagoa izango du, Klimaren Europako Legearen, Klima Aldaketaren eta Energia Trantsizioaren Legearen (Gobernu zentralak sustatua) eta EAEko Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Legearen (aurtengo maiatzean onartua) bitartez.

Neurriak hartu ahal izateko, lehenik eta behin jain behar da nondik abiatzen garen, eta horregatik Udalak udal eraikinen eta argiteria publikoaren energia ikuskapenak egin zituen. Horrekin batera, udalerriko Klima eta Energia Plana egin zen. Horretarako, Aztes enpresa kontratatu zen, eta udal teknikariek aztertu ondoren, Udal Gobernuak plana onartu du.

JUNE FERNANDEZ (BILBO, 1984)



Kazetaritzan lizentziatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean. 2006tik 2009ra El País egunkarian lan egin zuen. 2009tik 2011ra Bizkaiko SOS Arrazakeria GKEko langilea izan zen. 2010 eta 2020 artean, Pikara Magazine aldizkari digital feministaren koordinazio-taldeko kide izan zen. 2013tik, iritzi artikulua bat argitaratzen du hilero Argia-n. Gaur egun, kazetaria, prestatzailea eta freelance aholkularia da, eta batez ere Pikara Magazine eta Argia-rekin kolaboratzen du. Bertan, zutabegile lana erreportaje eta elkarrizketa lanekin uztartzen du. Sare Lesbianista Bilboko sare lesbofeministan militatu du. 2008an, Lucía Martínez Odriozola Kazetarion Berdinsarearekin batera, Genero-ikuspegia duten Kazetarien Euskal Sarea sortu zuen, 2011ra arte funtzionatu zuena, eta Genero Ikuspegia duten Kazetarien Nazioarteko Sareko kide da. Gaur egun, Zutunik! Elkarte feministako kide da.

Se licenció en periodismo por la Universidad del País Vasco. Trabajó en El País de 2006 a 2009. De 2009 a 2011 fue trabajadora en la ONG SOS Racismo de Bizkaia. Entre 2010 y 2020, formó parte del equipo de coordinación de la revista digital feminista Pikara Magazine. Desde 2013, publica un artículo de opinión mensual en Argia. En la actualidad, es periodista, formadora y consultora freelance, y colabora sobre todo con Pikara Magazine y con Argia, donde ahora compagina la actividad de columnista con la redacción de reportajes y entrevistas. Ha militado en la red lesbofeminista de Bilbao, Sare Lesbianista. En 2008 fundó junto con Lucía Martínez Odriozola Kazetarion Berdinsarea, la Red Vasca de Periodistas con Visión de Género, que funcionó hasta 2011, es integrante de la Red Internacional de Periodistas con Visión de Género. En la actualidad, milita en la asociación feminista de Larrabetzu, Zutunik!.